



LIBURUA

Arropa estuei tamaina hartzen



AITAREN ETXEA KARMELE JAIIO

ELKAR, 2019

AMAIA ALVAREZ URIA

2019an ikuspegi feministatik literaturan egindako deseraikitzeak egon dira euskaraz. Amatasunari begirako Katixa Agirrerren *Amek ez dute* (amatasun-sena auzitan jartzen du) eta Karmele Jaioren *Aitaren etxea* (aita-senarraren rolari astindua ematen dio), adibidez. Bigarrenari begiratuko diogu gaurkoan.

Eskaintzan “gizon berriei” irakur dezakegu. Izan ere, “maskulinitate berriei” buruzko lantzat har dezakegu. Nola izan gizon (heterosexual), aita, senar XXI. mendean? Belaunaldi batean, bitan garaiak hainbeste aldatu ostein? Bi greba feministen ostein, laugarren olatuak harrrapa ez zaitzan?

Era berean, 2016an euskaraz plazaratu zen Najat El Hachmiren *Azken patriarka* gogorarazi digu. Han bezala hemen

ere protagonistak bere aitari begiratzen dio patriarkatuaren ordezkari fierra den eta jada eredu ez den horri. Nahiz eta oraingoan, alabak hitz egin beharrean, semeak egiten duen.

Bestela esanda, uniforme bat ematen dizutenean aukerak dituzu. Badira hartara moldatzen direnak, nahiz eta deseroso sentitu; badira bere modura moldatzen dutenak gustura izan arte; eta badira erantzi eta bere arropak janzten dituztenak, ondorioei aurre egiteko prest. Liburu hau horretaz ari zaigu, egokitu zaizkigun arropaz edo uniformeez. Emakume eta gizon rolei buruz.

Ismael eta Jasone senar-emazteak dira. Gurasoak. Bikote. Familia. Gizon eta emakume. Eta Libe bataren arreba eta bestearen lagun mina gaztarotik hona. Hiru pertsonaia horien izenak dituzte li-

buruko kapituluek. Izan ere, fokua bate-tik bestera saltoka joango da bizipenak, ikuspuntuak, ibilbideak tartekatuz.

Istoria eraikitzen joango da pertsonaia bakoitzak bere bidea egin ahala. Euren burua deseraikitzen joango dira. Egokitu zaizkien arropen erreparatu eta harekin zer egin nahi duten erabaki arte irakurlea bilakaeren eta aurkikuntzen lekuko izango da.

Eraikitze-deseraikitze prozesuarekin batera idazletzari buruzko gogoetak tartekatuko dira. Idazteak dituen argilunak agertuko dira eta literaturaren funtzioa eta balioa izango dira hizpide. “Idaztea lur azpian utzitako guztiak ateratzeko modua da” eta, irakurri dezakegunez. Literaturaren xedeetako bat munduak deskubritu eta zurrumbiloei zentzua ematea da, ala ez da? ●